

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5867

AGINDUA, 2017ko azaroaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2017ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 23a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Izen-deiturak	Espediente-zk.	Modalitatea	Oharrak
Aguirre Moragues, Nerea	551/17/D	Errugbia	Kirolaria
Alvarez Urkizu, Estibaliz	550/17/D	Softballa	Kirolaria
Azurmendi Moreno, Clara	541/17/D	Badminton	Kirolaria
Barandiaran García, Ane	549/17/D	Softballa	Kirolaria
Bordagaray Martija, Irati	559/17/D	Piraguismoa	Kirolaria
Carazo Tobar, Jon	544/17/D	Arrauna	Kirolaria
Carrera García, Rebeca	548/17/D	Softballa	Kirolaria
Crujeiras Bello, Hodei	553/17/D	Piraguismoa	Kirolaria
Díaz Rivas, Virginia	543/17/D	Arrauna	Kirolaria
Eguibar Bretón, Lucas	533/17/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Esparta Frade, Andoni	557/17/D	Mendia	Kirolaria
Juez Gonzalez, Jose Ignacio	552/17/D	Aire-kirolak	Kirolaria
Linacisoro Molina, Mikel Asier	542/17/D	Mendia	Kirolaria
Martin Ortiz de Urbina, Gorka	555/17/D	Piraguismoa	Kirolaria
Orduña Enparantza, Nora	536/17/D	Atletismoa	Kirolaria
Paredes Fernandez, Irune	556/17/D	Softballa	Kirolaria
Peula Cabello, Francisco Jose	546/17/D	Irristaketa	Kirolaria
Regueiro Laplana, Alejandro Luis	538/17/D	Arrauna	Kirolaria
Santacana Maiztegui, Jon	537/17/D	Neguko Kirol egokitua	Kirolaria
Tolosa Inda, Ainhoa	558/17/D	Piraguismoa	Kirolaria
Morales Sarmiento, Marcos Cesar	88/17/T	Arrauna	Teknikaria
Diaz Perez de Palomar, Roberto	13/17/J	Futbola	Epailea
Martinez Barredo, Ivan	12/17/J	Tenisa	Epailea